

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2023/01/25

Ordua: 18:00

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Jexux Leonet Elizegi

Zinegotziak:

EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza
Jon del Olmo Larrañaga
Miren Yosune Cousillas Aramendi
Josu Delgado Rozas
Olga Maria Aranzazu Leibar Mendarte
Enekoitz Marcos Azpiroz
Goratz Gezala Etxeberria
Miren Arroza Lizaso Azpiroz

EAJ-PNV

Rafael Bergareche Urdampilleta
Iñaki Arbelaitz Michelena
Yon Goikoetxea Labaka
Janire Michelena Lecuona

Idazkaria:

M^a Victoria Joaristi Olariaga

Ezin etorria adierazi dute:

EHBildu

Eneritz Arbelaitz Sarasti
Olaia Lasa Olaziregi
Haizea Saez de Eguilaz Perez

EAJ-PNV

Maitane Larruskain Aguirre

AZTERGAIAK:

Akordioak

- 2022ko abenduaren 20ko ohiko eta 2023ko urtarrilaren 13ko ezohiko bilkuren aktak onartu ziren.
- Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa Oiartzungo Udalari atxikitzea eta estatutuak legez egokitzeko lan-dokumentua igortzea erabaki zen.
- Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren 2023 urteko ekarpena eta ordainketa moduaren zehaztapena onartu zen.
- Oarsoaldea S.A.ren gestio plana gauzatu ahal izateko, udala eta elkartearen arteko 2022ko lankidetzat hitzarmenaren baitan, 4. hiruilekoaren %80ko ekarpena ordaintzea erabaki zen.

5. Onartzea Añarbeko Urak, S.A. eta uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuan parte hartzen duten erakundeen arteko elkartzeko akordioa onartu zen, uraren zikloa digitalizatzeko dirulaguntzen deialdian parte-hartzearen kudeaketarako.
6. 2023 urteko kontratazio-plana onartu zen.
7. 2023 urteko udal langileen soldaten igoera onartu zen.
8. 2023ko udal lanpostu-zerrenda eta plantilla organikoa onartu ziren.
9. Zailtasunak dituzten adin txikikoentzako eta haien familientzako dirulaguntzen deialdia egin eta oinarriak onartu ziren.
10. Gizarte bazterketa eta ekonomia larritasun egoerei aurre egiteko norbanako eta familientzako dirulaguntzen deialdia egin eta oinarriak onartu ziren.
11. Oiartzungo kirol-kluben eta -elkarteen funtzionamendu gastuetarako eta jarduna sustatzeko 2023ko dirulaguntzen deialdia egin eta oinarriak onartu ziren.
12. Soinuenea Fundazioa eta Udalaren arteko hitzarmenaren baitan, 2022ko gastuen zuriketa onartzea eta 2023 urteko dirulaguntzaren gastua eta ordainketa-epeak onartzea eta lehen zatia ordaintzea erabaki zen.
13. Luberri Ikasgune Geologikoa eta Udalaren arteko hitzarmenaren baitan, 2022ko gastuen zuriketa onartzea eta 2023 urteko dirulaguntzaren gastua eta ordainketa epeak onartzea, eta lehen zatia ordaintzea erabaki zen.
14. Oiartzungo Udala eta Ibergain Musika Eskolaren arteko lankidetzako hitzarmenaren baitan, 2022-2023 ikasturteko ordainketak finkatzea eta onartzea, ikasle-zerrenda onartzea eta bigarren ordainketa egitea erabaki zen.
15. Hainbat ordainagiri kobraezin edo preskribatuta aitortu eta kobratze-eskubideari baja emateko izapideak agintzea erabaki zen.
16. Beste ekitaldietako ordainagiriak baliogabetu ziren.

Berri emateak

17. Oiartzungo Udalaren Finantza Kontroleko Planaren ondoriozko ekintza planaren berri eman zen.
18. Beste organoen jardueraren jarraipena: hartutako erabakien (Alkatetzaren ebazpenak eta Gobernu Batzordeko akordioak) eta protokolo gastuen berri eman zen.
19. Ez zen eskaririk ez eta galderarik egin.

Quorum nahikoa dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria bertan daudenez, baliozko bilkura eratu da.

Alkateak idazkariari ongietorria emanaz eta zorta ona opatuz hasi du bilkura.

Erabakiak

- I -

AURREKO BATZARREI DAGOZKIEN AKTEN ONARPENA

2022ko abenduaren 20ko ohiko eta 2023ko urtarrilaren 13ko ezohiko bilkuren aktak onartu dira aho batez, aldeko 13 botoko emaitzarekin.

- II -

OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOA OIARTZUNGO UDALARI ATXIKITZEA ETA ESTATUTUAK LEGEZ EGOKITZEA.

Idazkariak egindako txostenaren baitan, Oiartzunerako hezkuntza-proiektuak sustatu eta kudeatzeko Oiartzungo Udalak, Haurtzaro Ikastola Elkarte Koop.k eta Bianditz, S.L.k sortu zuten Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa, bereziki hezkuntza-sistemako maila guztietako irakaskuntzak bere gain hartzeko, nahiz eta, lehenengo fasean behintzat, 0-3 adin tarteko haur-hezkuntzaren etapa bere gain hartzeko helburuarekin.

Orduz geroztik, partzuergoei eta haien funtzionamenduei eragiten dieten lege-xedapen ugari onartu dira. Esanguratsuenak, 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena edo 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoari buruzkoa.

Beraz, beharrezkoa da partzuergoaren estatutu- eta antolaketa-egokitzapen osoa egitea, aplikagarri zaizkion xedapen guztietara moldatzeko; izan ere, haren estatutuak ez datoz bat indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin, eta funtzionamendua ez dator bat kontratazioari, aurrekontuei, gardentasunari eta abarri dagokienez indarrean dagoen legeriarekin.

Lehenik eta behin aipaturiko 40/2015 Legearen 120. artikulua dio partzuergo guztiek administrazio publiko bati atxikita egon behar dutela. Beraz, lehen erabakia Oiartzungo udalari atxikitzea izango da. Ondorioz, partzuergoa udalaren aurrekontuari, kontabilitateari eta kontrolari atxikita egongo da eta bere aurrekontua txertatuko da edo, hala badagokio, udalaren aurrekontuekin batera aurkeztuko da.

Bestalde, Sektore publikoaren Kontratazioa arautzen duen 9/2017 Legearen aplikazioak kontratazioa zuzenbide pribatua beteaz egingo zela adierazten duten Estatutuen artikulua moldatu beharko dira, partzuergoa sektore publiko ez ezik administrazio publikotzat joko delako.

Bukatzeko, estatutuen moldaketak Euskal Sektore Publikoa arautzen duen 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, eta Aurrekontu-egonkortasuna eta Finantza-iraunkortasuna arautzen dituen 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, barneratu beharko ditu.

Udalak partzuergoaren xede den haur eskolen esparruan eskumenak izatearen inguruan txostena egin da eta honako ondorioak azpimarratu dira:

- Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak berariaz esleitzen die udalei hezkuntza-politika planifikatzeko eta ezartzeko eskumena, hezkuntza-administrazioaren lankidetzarekin, eta bereziki azpimarratzen du udalek haur-hezkuntzako eskoletan duten eskumena.
- Euskal Eskola Publikoaren legeak berariaz jasotzen ditu kontzeptu horretan udal-titulartasuneko ikastetxeak.
- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak berariaz ezartzen du udalerriek hezkuntzaren arloan dituzten eskumenetako bat dela udalerrian irakaskuntzaren programazioan parte hartzeko eskumena.
- Edozein modutan, aipatu Legearen hirugarren xedapen iragankorrak ahalmena ematen dio udalari LILE indarrean sartu zenean egiten zituen jarduerak, zerbitzuak edo prestazioak garatzen jarraitzeko; kasu horretan, ez da aplikatuko bikoiztasunik ezaren eta finantza-iraukortasunaren betekizunak betetzen direla justifikatzeko beharra.

Ondorioz, Ogasun, kontu berezien eta hainbat gaien batzordeak 2023ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran emandako diktamenaren arabera, Udalbatzak honako akordioa hartu du:

LEHENENGOA.- Oiartzungo Udalak, Haurtzaro Ikastola Elkarte Koop.k eta Bianditz, S.L.k sortu zuten Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa Oiartzungo udalari atxikitzea. Ondorioz, Partzuergoa udalari dagokion aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-araubidearen mende egongo da, hargatik eragotzi gabe apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitakoari lotzea.

BIGARRENGOA.- Partzuergoko gainerako erakundeei estatutu berrien lan-agiria bidaltzea, indarrean dagoen araudira egokitu daitezten eta Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordeak onartu ditzan.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

- III -

OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOAREN 2023 URTEKO EKARPENA ETA ORDAINKETA MODUAREN ZEHAZTAPENA ONARTZEA.

Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak 2022ko urriaren 20an aurkeztutako idatziaren bidez, 2023 urteko ekarpenaren proposamena luzatu zion Udalari, hileroko ordainketak planteatuz. Urte osoko ekarpena 798.000,00 €-tan finkatzen zuen, bertan langileen soldataren %3,5eko igoera aurreikusten delarik.

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, Estatuko 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 31/2022 Legearen arabera, 2023. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezin izango dute %3,5eko igoera baino handiagoa izan. Beraz, langileen ordainsarien % 3,5eko igoera aplikatuz, urteko ekarpena 798.000,00 €-takoa da.

Guzti hau kontutan hartuta, Ogasun, kontu berezien eta hainbat gaien batzordeak, 2023ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran emandako diktamenaren arabera, Udal Osoko Batzarrak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren 2023 urteko ekarpena orotara 798.000,00.-€tan finkatzea. Ordainketa hileroko ekarpenen bidez egingo da, hileko 57.000,00 €, ekaina eta abenduok izan ezik, hauek bikoitzak izango baitira (114.000,00.- €), hau da, ekarpena 14 zatitan banatuko da.

Aipatu gastua udal aurrekontuaren 1 0604.481.323.02.01.2023 diru-atalaren kontura bideratuko da (AD-4/2023).

Bigarrena.- Onarpenarekin diru-erreserba guztia egingo da eta hilabetez-hilabete ordainduko da dagokion kopurua.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

- IV -

OARSOALDEA S.A.REN GESTIO PLANA GAUZATU AHAL IZATEKO, UDALA ETA ELKARTEAREN ARTEKO 2022KO LANKIDETZA HITZARMENAREN BAITAN, 4. HIRUHILEKOAREN %80KO EKARPENA ORDAINTZEA.

OARSOALDEA, SA-k 2021eko Gestio Plana dela eta martxan jarritako programen lehen eta bigarren hiruhilekoen ordainketa bideratzea dagokio.

Oiartzungo Udalak 2021eko maiatzaren 26an egindako udalbatzarrean onartu zuen 2021eko Gestio Planarengatik udalak ordaindu beharreko zenbatekoak eta honi lotutako lankidetzaz-hitzarmena sinatzea.

Ikusirik 2021eko uztailaren 28an egindako udalbatzarrak onartu zuela 1. eta 2. hiruhilekoen ordainketa, 2021eko urriaren 25ean egindako udalbatzarrean 3. hiruhilekoen ordainketa eta 2022ko urtarrilaren 26ko udalbatzan 4. hiruhilekoaren %80 ordaintzea.

Orain laugarren hiruhilekoaren %20a eskatu dute eta 2021eko Urteko Kontuak Oarsoaldeko Kontuhartzaileen Batzorde ekonomikoan aztertu ziren 2022ko maiatzaren 13an, eta bertan adostasuna eman genien 4 udaletako ordezkariak. Horrenbestez, Oarsoaldeko Kontseiluak 2022ko ekainaren 2an onartu zituen.

Ondorioz, 2022ko Ogasun, kontu berezien eta hainbat gaien batzordearen diktamenarekin adostasunean, ondorengo ordaintzea erabaki da aho batez:

- Hiri berriztapena: (A-705-2021)	692,40 €
- Turismo sustapena eta Kontsumoa: (A-707-2021)	3.703,14 €
- Gizarteratzea: (A-708-2021)	7.942,05 €
- Industria sustatzeko: (A-709-2021)	2.694,54 €

Guztira laugarren hiruhilekoaren %20agatik: **15.032,13 €** ordaintzea erabaki da aho batez.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

- V -

ONARTZEA AÑARBeko URAK, S.A. ETA URAREN HIRI-ZIKLOAREN EFIZIENTZIA HOBETZEKO PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARTZE-AKORDIOA, URAREN ZIKLOA DIGITALIZATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAN PARTE-HARTZEAREN KUDEAKETARAKO.

2022ko irailaren 30eko BOEren 235. zenbakian argitaratu zen irailaren 23ko TED/934/2022 Agindua, zeinaren bidez onartzen baitira uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka-bidezko laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuen lehia-konkurrentziako lehenengo deialdia, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak deituak.

Honen harira, Añarbeko Urak S.A.k Añarbeko Mankomunitatea osatzen duten 9 udaloi, Oiartzun horien artean, 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriena, bere 67 artikuluan aurreikusten duen Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren jardueretarako dirulaguntza-deialdietarako eskabideak aurkezteko elkarte osatzea proposatu die.

Guzti hau kontutan hartuta, sail ezberdinetako teknikarien txostenen baitan eta Obrak Batzordeak 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran emandako diktamenaren arabera, Udalbatzak honako akordioa hartu du:

LEHENENGOA.- Onartzea koordinatzailearen (AGASA) eta DIGURBE proiektuan parte hartzen duten entitateen arteko elkartze-akordioa.

BIGARRENA.- Irailaren 23ko TED/934/2022 Aginduak erregulatutako prozeduran parte hartzea eta berori espresuki onartzea, eta, horrenbestez, prozedura hori onartzea eta horri men egitea, erregulatuta dagoen bezala.

HIRUGARRENA.- Onartzea AGASA buru duen elkarte-proiektuan barne hartutako udalerrian egin beharreko jarduketak. Oiartzungo Udalak harekin parte hartzen du aurretik deskribatutako deialdian. Jarraian, jarduketa horiek deskribatzen dira:

- Izenburua: Donostialdeko uraren zikloaren digitalizazioa
- Akronimoa: DIGURBE
- Xedea: Uraren ziklo integraleko zerbitzuak digitalizatzea
- Udalerrian egin behar diren eta diruz lagundu daitezkeen jarduketak:

Actividad	Título Descriptivo y abreviado (Negrita)	Rol	Presupuesto (€)
A2-A1-01	Toma de datos redes de abastecimiento	SOCIO	4.631,00 €
A2-A2-01	Redacción de los Planes Integrales de Abastecimiento: Modelización redes,	SOCIO	-

	sectorización, análisis garantía suministro, análisis fugas, propuesta mejoras		
A2-A3-01	Sectorización de las redes de abastecimiento de distribución de agua potable (Sistemas en alta y en baja): instalación de válvulas de corte, caudalímetros, manómetros	SOCIO	
A2-A3-02	Determinación de estado de las redes de abastecimiento. Reducción de pérdidas de agua (Fugas estructurales)	SOCIO	17.025,00 €
S1-A1-01	Toma de datos redes SA y Levantamiento de aliviaderos e instalaciones de SA	SOCIO	11.454,47 €
S1-A2-01	Redacción de los Planes Integrales de Saneamiento: Estado actual, datos del funcionamiento, modelización y sectorización de las redes de saneamiento de agua residual.	SOCIO	17.494,70 €
S2-A1-01	Proyecto, instalación y mantenimiento de equipos de medidas de cantidad y calidad del efluente al medio receptor (Redes y aliviaderos)	SOCIO	29.000,00 €
AT-C3-05	Desarrollo del nuevo sistema de control unificado (SCADA +)	SOCIO	5.000,00 €
TOTAL PRESUPUESTO			84.605,17 €
IMPORTE SUBVENCION			65.023,62 €

- Jarduketan aurrekontua (BEZa barne): 102.372,26 €
- Jarduketan aurrekontua gastu hautagarriaren gainean (BEZik gabe): 84.605,17 €.
- Gastu hautagarriaren gainean eskatutako dirulaguntza (BEZik gabe): 65.023,62 €.
- Baterako finantzaketa: 19.581,55 €.
- Egikaritze-epaia: 2025/12/31.
- Dirulaguntza ematen duen erakundea: Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Ingurumeneko Estatu Idazkaritza.
- Dirulaguntza eskatzen duen organoa: DIGURBE Elkarte.
- Unitate exekutatuzailea: Oiartzungo Udala.

LAUGARRENA.- Proiektua hautatuz gero eta eskatutako dirulaguntza emanez gero, konpromisoa hartzea aurrekontu-zuzkidura izateko eta planteatutako proiektua finantzatzeko kreditu nahikoa gaitzeko, proiektua egikaritzeko onartzen den egutegiaren arabera. Proiektuaren zati diren jarduketa horiek gauzatzeko eta horien sostengatze ekonomikoa bermatzeko, erabaki da diruz lagundu ezin den jarduketan zatia aurrekontu-zuzkiduren aurreikuspen hauen kontura finantzatzeko dela: gastu horiei aurre egiteko aurrekontu-partida zuzkiturik ez badago, dagozkion aurrekontu-aldaketak egitea.

Edonola ere, proiektuan jasotako jarduketetan diruz lagundu ezin den zatia finantzatzeko, laguntzak ematen dituen erakundearen ebazpena lortu beharko da eta horren eduki zehatzari jarraituko zaio.

BOSGARRENA.- Konpromisoa hartzea Oiartzungo Udalak behar diren baliabide teknikoak eta finantzarioak izan ditzan, diruz lagundutako jarduketa abian jarri ondoren eta gutxienez jardueraren lehenengo bost (5) urteetan hura mantendu eta gauzatzeko dela bermatzeko.

SEIGARRENA.- Zuzenbidean eskatzen den ahalmen zabala eta nahikoa ematea Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. entitatearen alde (IFZ: A20538039), DIGURBE izeneko proiektua garatuko duen

Elkartearen barruan dagoen erakunde ahalordedunaren izenean eta ordezkartzan, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren aurrean jardun dezan, prozedura bere izapide guztietan jarraituz, eta horretarako beharrezkoak diren adierazpen eta agiri publiko eta/edo pribatu guztiak sinatuz, eta, zehazki, irailaren 23ko TED/934/2022 Aginduaren 6.b.iv) artikuluan deskribatutako eginkizun guztiak betez. Agindu horren bidez, uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidezko lehenengo deialdia (2022) eta diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzen dira.

ZAZPIGARRENA.- Erabaki hau gauzatzeko, Alkate-lehendakariak entitateen arteko elkartze-akordioa edota bestelako dokumentuak formalizatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko ahalmena ematea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

- VI -

2023 URTEKO KONTRATAZIO-PLANA ONARTZEA.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen- zeinaren bidez ordenamendu juridikora ekartzen diren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioak - 28.4 artikuluan xedatutakoa betetzeko, idazkaritza sailetik errekerimendua egin zaie udaleko sailei 2023. urtean lizitatzea aurreikusten duten informazioa eman dezaten.

Udal arloek emandako informazioaren arabera, Oiartzungo Udalaren 2023rako Kontratazio Plana egin da.

Kontratazio plana prestatu, onartu eta argitaratzea nahitaezkoa da erregulazio harmonizatuko kontratuertarako, gutxienez. Prestatu den Plan horretan erregulazio horri lotuta ez dauden baina aurreikusi daitezken kontratuak ere barneratu dira, Oiartzungo Udalaren 2023rako kontratu-jarduera ezagutaraztean, gardentasun printzipioa betetzearen, eta enpresei aukera emateko udalaren kontratu-beharrak alde aurretik ezagutzeko, beren eskaintzak zehaztasun handiagoz prestatu ahal izan ditzaten. Kontratu bakoitzari dagokionez, honako datu hauek ematen dira: kontratuaren helburua edo izena, kontratu-mota, aurreikusitako zenbatekoa, iraupena eta prozedura mota.

Edonola ere, plana aurreikuspen hutsa da, hau da, ez du behartzen erlazioak barne hartzen dituen kontratu guztiak lizitatzera edo iragarritako baldintza zehatzekin lizitatzera; beraz, ematen dituen datuak ez dira lotesleak.

Guzti hau kontutan hartuta, kontratazio teknikariak egindako txostenaren baitan eta Ogasun, kontu berezien eta hainbat gaien batzordeak aztertu du gaia, 2023ko urtarrilaren 17ko bilkuran emandako diktamenaren arabera, honako akordioa hartu du Udaltzatik:

Lehena.- 2023 urteko Kontratazio Plana onartzea, eranskin bezala doana.

Bigarrena.- Kontratazio Plan hori Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea, bai eta Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 28.4 artikulua zehaztutako moduan.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

- VII -

2023 URTEKO UDAL LANGILEEN SOLDATEN IGOERA ONARTZEA.

Oiartzungo Udaleko enplegatu zein ordezkari publikoen ordainsariak berraztertzeke unean aplikagarria den Legedia hartu da kontutan, halaber, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren testu bateratua, abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legea eta, bereziki, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Ordainsarien uztailaren 30eko 207/1990 Dekretua.

Halaber, 2022eko abenduaren 24an argitaratu zen Estatu Aldizkari Ofizialean abenduaren 23ko 31/2022 Legea, Estatuaren 2023. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta 2022ko abenduaren 30ean argitaratu zen EHAAn 15/2022 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen eta hauetatik ondorioztatzen da 2023 urteko ordainsarien igoerak ezin duela % 2,5eko igoera gainditu, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean; eta Udalkideen eta behin behineko langileen soldata mailak gehienez ere ehuneko berean igo daitezkeela, hots, ezin duela % 2,5eko igoera gainditu.

Aipatu araudietan oinarrituta, Oiartzungo Udaleko enplegatu zein ordezkari publikoen 2023. urteko ordainsariak berrikusi dira, udal-enplegatu publikoen ordezkariekin negoziazioa burututa.

Guzti hau kontutan hartuta, Giza Baliabideetako arduradunak egindako txostenaren baitan eta Langileria batzordeak 2023ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak honako akordioa hartu du:

Lehena.- 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, % 2,5eko ordainsari-igoera orokorra baimentzea, 2022ko abenduaren 31n indarrean dauden urteko ordainsari osoen aldean, Oiartzungo Udalaren zerbitzura diharduten funtzionarioentzat eta lan-kontratuko langileentzat.

Bigarrena.- Zinegotzien eta behin-behineko langileen ordainsari-mailak ehuneko berean baimentzea, udal-langileen ordainsari-mailekin bat etor daitezen.

Hirugarrena.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Alkateak dio: “soldata igoera hau % 2,5ekoa da Madrilgo Aurrekontuen Legeak orain horrela baimentzen duelako, baina aurrean ere aurreikusten da % 0,5 igoetza KPIaren igoeraren arabera eta beste % 0,5 barne produktu gordinaren arabera indizea kontutan hartuta.

Horrek esan nahi du aurten urte bukaera baino lehen agian igoera errebisatu beharko dugula, ezaugarri horiek nola joan diren ikusita.”

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

- VIII -

2023KO UDAL LANPOSTU-ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA.

Abenduaren 1eko, Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 45.artikuluak arautzen du lanpostuen zerrenda. Artikuluaren 6.zenbakiak jasotzen du nolana ere, lanpostuen zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatuko direla lanpostuak. Era berean, egitura organikoa aldatu nahi izanez gero, aldi berean aldatu beharko direla dagozkien lanpostu-zerrendak edo haien ordezko tresnak.

Honakoak dira 2023. Urteko lanpostuen zerrendak 2022. Urtekoarekin alderatuta edukiko dituen aldaketak:

1. Zaintzari erreferentzia. Horrela aplikatzen zaien lanpostuei zaintzari dagokion ordainsari gehigarria jasotzea.
2. Udaltzaingo agente plaza baten amortizazioa eta lanpostua ezabatzea.
3. Ordainsariaren igoera orokorra jasotzea.
4. Arkitekto Teknikoaren titulazioan zehaztea.

Enplegatu publikoen ordezkariekin negoziatu dira aipatu aldaketak.

Honenbestez, Langileria Batzordeak 2023ko urtarrilaren 17ko bilkuran emandako diktamenaren baitan, honako akordioa hartu du Udalbatzak:

Lehena.- 2023. urteko lanpostuen zerrenda onartzea eta 2022. Urtekoarekiko honako aldaketak onartzea:

- Zaintzari dagokion ordainsari gehigarria- jasotzea Lanpostuen Zerrendan honako lanpostuetan, ohar modura:
 - o Gizarte langilea-Etxez-etxeko zerbitzuaren koordinatzailea: 2.797,56 €/urteko (233,13€/hil.)
 - o Betekizun anitzetarako ofiziala (guztira 2): 2.797,56 €/urteko (233,13€/hil.)
 - o Obra eta Zerbitzuko gidaria: 2.797,56 €/urteko (233,13€/hil.)
 - o Etxez etxeko laguntzailea (guztira 7): 53,20€ / 7 eguneko guardiatatik
- Udaltzaingoa saileko udaltzaingo agentearen lanpostua ezabatu eta plaza amortizatzea.
- Lanpostuen zerrendako berariazko osagarriak eguneratzea 2023. Urtean egindako ordainsarien %2,5eko igoera orokorrari erantzuteko.
- Arkitekto teknikoaren plaza betetzeko eskatzen den titulazioa aparejadorea, arkitektura teknikoa edo baliokidea.

Bigarrena.- 2023. urteko plantilla aldatzeko hasierako onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta iragarkia argitaratzen denetik hamabost egun balioduneko epean jendaurrean jartzea, epe horretan interesatuek aztertu eta beren erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, espedientea jendaurrean dagoen bitartean, behin betirako onartutzat joko da.

Hirugarrena.- 2023. Urteko lanpostuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

- IX -

ZAILTASUNAK DITUZTEN ADIN TXIKIKOENTZAKO ETA HAIEN FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA EGITEA ETA OINARRIAK ONARTZEA.

Zailtasunak eta babesgabetasun arrisku egoeran dauden adingabekoak eta haien familiak laguntzeko Gizarte Zerbitzuetako arduradunak Udalak eman ohi dituen dirulaguntzen 2023 urteko oinarri arautzaileak idatzi ditu. Dirulaguntzak norgehiagoka prozedura erabiliz banatuko dira eta 2023ko udal aurrekontuan 30.000 €-ko diru-erreserba egin da xede horretarako.

Guzti hau kontutan hartuta, Gizarte Ongizate batzordeak, 2023ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran emandako diktamenaren baitan, Udal Osoko Batzarrak honako akordioa hartu du:

Lehena: 2023an zailtasunak eta babesgabetasun arrisku egoeran dauden adingabekoak eta haien familientzako dirulaguntzak banatzeko oinarriak, eranskinean jasota dauden moduan, onartzea.

Horretarako, 30.000 €ko gastua onartzea 2023 urteko udal aurrekontuko 1 1001.480.231.00.04 diru-atalaren kontura (A-67/2023).

Bigarrena: Oinarriok BDNS plataformaren bidez eta udal web orriaren bidez jendaurrean jarriko dira eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko dira. Eskakerak aurkezteko epea urte osoan egongo da irekita.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

- X -

GIZARTE BAZTERKETA ETA EKONOMIA LARRITASUN EGOEREI AURRE EGITEKO NORBANAKO ETA FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA EGITEA ETA OINARRIAK ONARTZEA.

Gizarte bazterketa eta ekonomia larritasun egoerei aurre egiteko norbanako eta familiei laguntzeko Gizarte Zerbitzuetako arduradunak Udalak eman ohi dituen dirulaguntzen 2023 urteko oinarri arautzaileak idatzi ditu. Dirulaguntzak norgehiagoka prozedura erabiliz banatuko dira. 2023ko udal aurrekontuan 115.000,00 €-ko diru-erreserba egin da xede horretarako.

Guzti hau kontutan hartuta, Gizarte Ongizate batzordeak 2023ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran emandako diktamenaren baitan, Udal Osoko Batzarrak honako akordioa hartu du:

Lehena.- 2023an gizarte bazterketa eta ekonomia larritasun egoerei aurre egiteko norbanako eta familientzako dirulaguntzak banatzeko oinarriak, eranskinean jasota dauden moduan, onartzea.

Horretarako, 115.000,00 €ko gastua onartzea 2023 urteko udal aurrekontuko 1 1001.480.231.00.02 diru-atalaren kontura (A-61/2023).

Bigarrena.- Oinarriok BDNS plataformaren bidez eta udal web orriaren bidez jendaurrean jarriko dira eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko dira. Eskakerak aurkezteko epea urte osoan egongo da irekita.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

- XI -

OIARTZUNGO KIROL-KLUBEN ETA -ELKARTEEN FUNTZIONAMENDU GASTUETARAKO ETA JARDUNA SUSTATZEKO 2023KO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA EGITEA ETA OINARRIAK ONARTZEA.

2023an Oiartzungo kirol-klub eta -elkarteen ohiko funtzionamendua garatzeko Gazteria eta Kirola zerbitzuko arduradunak Udalak eman ohi dituen dirulaguntzen oinarri arautzaileak idatzi ditu. Dirulaguntza hauek kirol modalitate bakoitzaren denboraldiak hartzen duen aldiaren arabera eta norgehiagoka prozeduraren bidez emango dira. Ordainketarako 54.000 €ko diru-erreserba egin da 2023 urteko udal aurrekontuan.

Guzti hau kontutan hartuta, Gazteria, kirola eta hezkuntza ez arautua batzordeak 2023ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran emandako diktamenaren arabera, Udal Osoko Batzarrak honako akordioa hartu du:

Lehena.- 2023an Oiartzungo kirol klubek edo elkarteek funtzionamendu gastuetarako eta beraien jarduna sustatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak, eranskinean jasota dauden moduan, onartzea.

Era berean, 54.000 €ko gastua onartzea 2023 urteko udal aurrekontuko 1 1102 481 341 00 02 diru-atalaren kontura (A-57/2023).

Bigarrena.- Oinarriok BDNS plataformaren bidez eta udal web orriaren bidez jendaurrean jarriko dira eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunean irekiko da eskaerak aurkezteko 30 egun naturaleko epea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

- XII -

SOINUENEA FUNDAZIOA ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN BAITAN, 2022KO GASTUEN ZURIKETA ONARTZEA ETA 2023 URTEKO DIRULAGUNTZAREN GASTUA ETA ORDAINKETA-EPEAK ONARTZEA ETA LEHEN ZATIA ORDAINTZEA.

Soinuenea Fundazioaren helburu nagusia herri musika sustatzea eta zabaltzea da, nagusiki Euskal Herriko Musika. Helburu hau, bere modalitate ezberdinetan garatzen du, herri musikaren inguruan ikerketa, trebakuntza, bilketa, kontserbazioa eta zabalkunde jardueren bitartez. Fundazioak bat egiten du, hortaz, euskal kultura sustatzeko Udalak dituen irizpideekin eta ondorioz, bi erakundeek elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten 2020ko otsailaren 3an.

Hitzarmenaren baitan, Oiartzungo Udalak urtero Soinuenea Fundazioari dirulaguntza ematen dio bere jarduna garatzen laguntzeko.

Gauzak horrela, 2023ko urtarrilaren 16an 275 zenbakiko sarrera-idatziaren bidez, Fundazioak 2022an izandako gastuak zuritzeko dokumentazioa aurkeztu du eta 2023 ekitaldiko dirulaguntza eskatu du. Dokumentazio hori guztia aztertuta, Kultura saileko arduradunak ontzat eman du.

Guzti hau kontutan hartuta, Kultura batzordeak 2023ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran emandako diktamenaren arabera, Udal Osoko Batzarrak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Udala eta Fundazioaren arteko hitzarmenaren 3. klausulan jasota dagoen bezala, Oiartzungo Udalak, Soinuenea Fundazioari, 93.300 € ko dirulaguntza ordaintzea 2023ko bere jarduerak bultzatzeko, udal aurrekontuetako 0801.481.333.00.08 (A/49-2023) eta 0801.481.334.00.03 (A/50-2023) diru-atalei egotzita.

Bigarrena.- Dirulaguntza hau lau epetan ordainduko da (%25a hilabete hauetako bakoitzean: otsailean, maiatzean, abuztuan eta azaroan).

Hirugarrena.- Soinuenea Fundazioak aurkeztutako 2022ko dirulaguntzaren justifikazio-kontua onartzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

- XIII -

LUBERRI IKASGUNE GEOLOGIKOA ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN BAITAN, 2022KO GASTUEN ZURIKETA ONARTZEA ETA 2023 URTEKO DIRULAGUNTZAREN GASTUA ETA ORDAINKETA EPEAK ONARTZEA, ETA LEHEN ZATIA ORDAINTZEA.

Luberri Oiartzungo Ikasgune Geologikoa Fundazioaren helburu nagusia geologia, mineralogia, paleontologia eta natur zientzien ikerketa eta zabalkundea da, Oiartzunen, Oarsoaldea eta Euskal Herriko eremuetan. Fundazioak bat egiten du, hortaz, euskal kultura eta natur zientzia eta ondarearen zabalkundea sustatzeko Udalak dituen irizpideekin eta ondorioz, bi erakundeek hitzarmena sinatu zuten 2020ko otsailaren 3an.

Hitzarmenaren baitan, besteak beste, Oiartzungo Udalak urtero Luberri Fundazioari dirulaguntza ematen dio bere jarduna garatzen laguntzeko.

Gauzak horrela, 2023ko urtarrilaren 3an 25 zenbakiko sarrera-idatziaren bidez, Fundazioak alde batetik 2022an izandako gastuak zuzitzeko dokumentazioa aurkeztu du eta bestetik, 26 zenbakiko idatziaren bidez, 2023 ekitaldiko dirulaguntza eskatu du. Dokumentazio hori guztia aztertuta, Kultura Saileko teknikariak ontzat eman du.

Guzti hau kontutan hartuta, Kultura Batzordeak, 2022ko urtarrilaren 21ean egindako bilkuran emandako diktamenaren baitan, Udal Osoko Batzarrak honako akordioa hartu du:

Lehena: Udala eta Fundazioaren arteko hitzarmenaren 3. klausulan jasota dagoen bezala, Oiartzungo Udalak, Luberri Ikasgune Geologikoa Fundazioari, 63.737,99 €ko dirulaguntza ordaintzea 2023an bere jarduerak bultzatzeko, udal aurrekontuetako 1 0801.481.333.00.09 (A/47-2023) diru-atararari egotzita.

Bigarrena: Dirulaguntza hau lau epetan ordainduko da (%25a hilabete hauetako bakoitzean: otsailan, maiatzean, abuztuan eta azaroan).

Hirugarrena: Luberri Oiartzungo Ikasgune Geologikoa Fundazioak aurkeztutako 2022ko dirulaguntzaren justifikazio-kontua onartzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

- XIV -

OIARTZUNGO UDALA ETA IBARGAIN MUSIKA ESZKOLAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN BAITAN, 2022-2023 IKASTURTEKO ORDAINKETAK FINKATZEA ETA ONARTZEA, IKASLE-ZERRENDA ONARTZEA ETA BIGARREN ORDAINKETA EGITEA.

Ibargain Musika Eskolak eta Oiartzungo Udalak musika irakaskuntza ez arautuaren bidez herritarrei formakuntza emateko xede duen hitzarmena 2019ko maiatzaren 2an sinatu zuten. Aipatu hitzarmenak bi aldaketa izan ditu, 2021eko azaroaren 24ko eta 2022ko ekainaren 29ko bilkuretan Udal Osoko batzarrak onarturikoak. Udalak babesten dituen kultur programa eta proiektuen barruan kokatzen da hitzarmena.

Hitzarmena eta aldaketak jarraiki, Ibargain Musika Eskolak azaroaren 30ean aurkeztu zituen 22-23 ikasturteko matrikulazioaren behin betiko datuak (ikasle-zerrenda eta familiei buruzko datuak) eta datu horiek aztertuta ikasturteko dirulaguntzaren behin betiko kopuruak zehaztu ditu Kultura Saileko teknikariak. Guztira ontzat emandako 85 ikasleren matrikulazio datuak jaso dira.

Lehen ordainketa, 42.232,00 €-koa, 2022ko abuztuan egin zen matrikulazio aurreikuspenak kontutan hartuta (%40), Udal Osoko Batzarraren 2022ko uztailaren 28ko akordioaren baitan.

Orain, bigarren ordainketa egitea proposatzen da, %40ari dagokiona, behin betiko datuak eskutan edukita lehen ordainketarekin doiketa egin eta gero.

Guzti hau kontutan hartuta, Kultura Batzordeak 2023ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, honako akordioa hartu du Udalbatzak:

Lehena.- 22-23 ikasturteko ordainketak honela finkatzea eta ordaintzea:

Urteko dirulaguntzaren kopurua, 85 ikasleri dagokiona, 97.700,00 eurotako izango da.

42.232,00 €ko lehen ordainketa, 2022ko abuztuan egindakoa, matrikulazio-aurreikuspenen %40aren baitan kalkulatu eta ordaindu zen.

Bigarren ordainketa urtariletik apirila arteko epeari dagokio eta dirulaguntzaren %40a suposatzen du. Kopurua 35.928,00 €tan zehazten da, behin betiko matrikulazio datuak jakinda eta lehen ordainketaren kopuruarekin doituta.

Azken ordainketa, dirulaguntzaren %20a, 19.540,00 €-tan zehazten da. 22-23 ikasturte amaieran egingo da gastuen justifikazioa aurkeztu ondoren.

Bigarrena.- Hitzarmenaren 3.4 klausularen arabera, urtarrilean 35.928,00 €ko bigarren ordainketa egitea Ibargain Musika Eskolari, 2023 ekitaldiko Udal Aurrekontuaren 1 08 01 480 334 00 03 diru-atalaren kontura (A-60/2023).

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa	1	Rafael Bergaretxe j.*

*Abstentzioa urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako arrazoiengatik eman da.

Gaia onartu da aldeko 12 botorekin eta abstentzio batekin (Rafael Bergaretxe zinegotzi jauna)

HAINBAT ORDAINAGIRI KOBRAEZIN EDO PRESKRIBATUTA AITORTU ETA KOBRAATZE-ESKUBIDEARI BAJA EMATEKO IZAPIDEAK AGINTZEA.

Dirubilketa zerbitzuak kobraezinak edo preskribatuak diren ordainagiriaren zerrenda egin du eta kobratzeko eskubideari baja emateko izapideak egin daitezen proposatu du.

Guzti hau kontutan hartuta, ogasun, kontu berezien eta hainbat gaien batzordeak, 2023ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak honako akordioa hartu du:

Zerrendatutako eta eranskinean jasotako ordainagiriak kobraezin edo preskribatuak aitortzea eta kobratzeko eskubideari baja emateko izapideak agintzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

- XVI -

BESTE EKITALDIETAKO ORDAINAGIRIAK BALIOGABETZEA.

Zerga bilketa arduradunak eta arkitekto aholkulariak idatzitako txostenen baitan jarraian zerrendatutako erreziiboak edo likidazioak baliogabetu eta kasua balitz, ordezeko agiriak sortzeko eta dagokionean itzulpenak egiteko proposamena egin dute:

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Ordainag.	€	Arrazoia
1 2022 01 1180	221,41	4565-DCS matrikula duen ibilgailuaren helbidea 2021 urtean aldatu zen Donostiara. Beraz, 2022 ekitaldian Oiartzunen ordaindutako ordain-agiria baliogabetu beharko litzateke.

UR-HORNIDURA ETA ESTOLDERIA ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA

Ordainag.	€	Arrazoia
3 2022 01 761	176,01	Ur erroldako oinarritzko dokumentazioa aztertu ondoren eta uretako teknikariak esandakoarekin bat, Zokolo bidea 4, 2.D etxebizitzari dagokion 2022/01 epeko uraren ordain-agirian gehiegizko kontsumoa erantsi zaio matxura baten ondorioz. Hortaz, aipatu ordain-agiria baliogabetu (ordaindua balego itzuli) eta ordezeko ordainagiria sortzea proposatzen da, fugan sortutako kontsumoa eta kontadore horrek jarduera arruntean daukan batz besteko kontsumoarekin (59 m ³).

Ordezko ordainagiriak

€	kontzeptua
94,10	Zokolo bidea 4, 2.D, 2022/01 epea

ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

Espedientea	€	Arrazoia
2022HI380095	217,32	Udalak Oiartzabal bidea 10eko portxearen teilatuan instalazio fotovoltaikoa jartzeko obra baimena eman zuen 2022ko urriaren 13an 1342 zenbakiko Alkatearen ebazpenaren bidez. Aipatu ebazpenean eraikin, instalazio eta obren gaineko zergaren likidazioa onartu zen. Ondoren, interesdunak aplika legokiokkeen hobaria aplikatzea eskatu du. Ikusita Udal Zerga Ordenantzen baitan eraikin, instalazio eta obren gaineko zergari %95eko hobaria aplikagarria dela eguzki energiaren aprobetxamendu termikoa edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemei, autokontsumoari begira eginak badira, onartutako likidazioa baliogabetzea eta berri bat sortzea proposatzen da %95eko hobaria aplikatuta.

Ordezko likidazioa

€	kontzeptua
64,47	Oiartzabal bidea 10eko portxearen teilatuan instalazio fotovoltaikoa jartzeko obra baimenaren EIOZ.

Guzti hau kontuan hartuta, Ogasun, kontu berezien eta beste gaien batzordeak, 2023ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran eta Hirigintza batzordeak 2023ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran emandako diktamenekin adostasunean, Udalbatzak honako akordioa hartu du:

Zerrendatu diren erreziboak eta likidazioak baliogabetzea eta kasua balitz, ordezko agiriak sortzeko agindua ematea. Halaber, eta dagokionean, ordaindutako diru-kopurua (gainkargua barne) itzultzea, bertan azaltzen diren arrazoiengatik.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Gaia aho batez onartu da, 13 aldeko botorekin (EHBildu, EAJ/PNV)

Berri emateak

- XVII -

OIARTZUNGO UDALAREN FINANTZA KONTROLEKO PLANAREN ONDORIOZKO EKINTZA PLANAREN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatu duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren baitan, kontu-hartzaileak 2022 urteko finantza kontroleko plana idatzi zuen, Oiartzungo Udala eta Oiartzungo Turismo Aukerak, S.A. entitateei aplikagarria dena. Guzti horren berri eman zitzaion Udalbatzari 2022ko apirilaren 27an egindako bilkuran.

Plan hau aplikatuta egindako kontrolaren eta kontu-hartze eginkizunaren emaitza txosten batean jaso da. Besteak beste, txosten honen lehen zatian udal organo erabakitzaileek egindako banaketan edo finantza zaintzaren arloan, kontuhartzaileek egindako txostenen aurka hartutako erabakien eta sarreretan hautemandako anomalia nagusien laburpena jaso da eta kontu-hartze eginkizunaren betetze maila eta kontu eta kutxa finkoko aurrerakinen kontrolaren emaitzak jaso dira. Bigarren zatian berriz, 2021 ekitaldian egindako finantza kontroleko eta kontu-hartze eginkizuneko jarduketek sortutako emaitzarik esanguratsuenak bildu dira, kontu-hartze eginkizuna, finantza kontrol iraunkorra eta auditoretza atalak aztertuz.

Txostenean konprobatutako egitateak eta lortutako konklusioak kontutan hartuz, Alkateak zuzenketak edo hobekuntzak lortzeko neurriak formalizatu ditu urtarrilaren 9an sinatutako ekintza planean.

Guzti hau 2023ko urtarrilaren 17an egindako Ogasun, Kontu-berezien eta Beste Gaien Batzordean aztertu ondoren, Udalbatzari berri ematen zaio.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

- XVIII -

BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA: HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK ETA GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK) ETA PROTOKOLO GASTUEN BERRI EMATEA.

Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:

2022ko abenduaren 16tik 2023ko urtarrilaren 20a arte.

Zk. 2022/1657tik 2022/1736ra eta 2023/01tik 2023/81a arte.

Tokiko Gobernu Batzarra:

2022ko abenduaren 21eko bilkura.

Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2022ko abendua:

Loreak-eskelak: 85,00 €

Jardunaldiak: 1147,08 €

Bazkariak, luntxak, ...: 724,51 €

GUZTIRA: 1.956,59

2023ko urtarrila:

Ikurrinak, garaikurrak, plakak, opariak,...: 109,78 €

GUZTIRA: 109,78 €

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

- XIX -

ESKARI-GALDERAK.

Ez zen eskaerarik ez eta galderarik egin.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:38ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritoki Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea

Idazkaria

Elektronikoki sinatutako agiria



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU96dfc58b-c2d1-4419-b04e-a5af739492e2**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikokoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ID370002-Akta Udal Osoa/Acta Pleno (OIARTZUNGO UDALA)